



**HARITZ
KANDUDUNA**

(Quercus robur)

Jatorria:

Europa, Asia, Ipar Afrika.

Deskribapena:

Erorkorrek eta forma luzanga duten hostoak ditu, 3 eta 6 arteko lobulu pare eta peziolo laburdunak. Lore arrak, berde horixka koloreko gerba zintzilikariekin osatuak dira, emeak, aldiz, oharkabean pasatzen dira. Biek oin bera dute. Fruituak pedunkulu luzeko ezkur zilindrikoak dira. Enbor azala, marroi iluna da eta zartadura bertikalak ditu. Orokorrean, zuhaitz honek itxura esferiko irregularra du eta jasan behar dituen baldintzen eta kokapenaren arabera aldakortasuna agertzen du. Tamaina handiko zuhaitza da, enbor adarkatu eta itxura indartsuarekin.

Bitxikeriak:

Erromatarrek, "robur" egur gogorrari deitzen zioten, baita indartsu edo animo jarraia zuen pertsonari ere. Mitologian zuhaitz sakratu gisa ezagutu da eta Euskal Herrian garrantzia handiko zuhaitza izan da, Gernikako arbola kasu. Sakratua izatearen sinesmen honen adibide da, Bizkaiko jauntxoak bizkaitarren askatasunen errespetua Gernikako Arbolen azpian zin egitea. 1.000 urtetik gora bizi daitezkeen zuhaitz hauek, aspalditik herri askotako batzar leku izan dira, seguru aski, bere izaera jakintsuaren bila. Gure eskualdean, haritza bioaniztasunerako oso garrantzitsua dela esan daiteke, zuhaitzen artean, animalia, landare eta onddoekin haritzak duen harremana anitzenetarikoa baita.

Arsuaga parkeko pinuak

16





Arsuaga parkeko pinuak

Ezkutuan dagoen Arsuaga parkean interesgarriak diren hainbat zuhaitz aurki ditzakegu, espezie desberdineko zedroak, ipuruak, marugak e.a. Hala ere, azterketa honen barnean sartu diren bi pinazi pinuak aipatuko ditugu, modu ezin hobean garatu baitira, euren jatorritik urrun egon arren. Arsuaga parkea egin zen garaikoak diren bi pinu hauen fruitu estimatuak dastatu ahal izateko, udaberri aldera lurrera erortzen diren pinaburuetatik pinaziak atera beharko ditugu. Pinaziak gordinik jan daitezke, nahiz eta sukaldaritzan txigortuak ere erabili.

Klasifikazio botanikoa:

Familia: *Pinaceae*

Generoa: *Pinus*

Espezia: *pineta*

Adina:

Pinu hauen adina 50 urtekoa dela uste da.

Ezaugarri azpimarragarriak:

Fruitua, tamaina, kokapena.

Ezaugarri fisikoak (batezbestekoa):

Enberraren perimetroa (m):	2,38
Zuhaitzaren altuera (m):	16,4
Koparen diametroa (m):	13,8

Balorazio ekonomikoa:

Taldea guztira: 62.206 €